DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2025

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA

- Kultura Ondarea Gazte-Saria 3
- Kultura ondarearen ikerketa 5
- Kultura ondare immaterialaren babesa 7
- Euskal kultura ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzea 9
- Itsas kultura ondarea 12
- Museoak eta bildumak 14
- Artxibo pribatuak 16
- Liburutegietan irakurketa sustatu 18
- Liburutegietarako liburu funtsak 20
- Teknologia berriak liburutegietan 22
- Kultura ondarea digitalizatzea 24
- Artxiboko dokumentazioa ikertzea (25/26) 26
- Musika (25/26) 28
- Arte eszenikoen sustapena (25/26) 29
- Arte eszenikoen produkzioa (25/26) 30
- Ikusentzunezko garapena (25/26) 31
- Ikusentzunezko produkzioa (25/28) 32
- Arte plastikoak eta ikusizkoak (25/26) 33
- Gure artea sariak 2025 34
- Literatura argitalpenak (25/26) 35
- Euskadi literatura sariak (25/26) 36
- Irudi sorkuntza (25/26) 37
- Sorkuntzako kultura guneak (SORGUNE) (25/26) 38

- Bitartekotza eta berrikuntza kultura eta gizarte arloan (BITARTEZ) 25/26 39
- Kultura sorkuntza (25/26)..... 40
- Jaialdiak 41
- Alderdi politikoen fundazioak 42
- Arte eszenikoak, musika, literatura eta arte plastikoak sustapena eta banaketa..... 43
- Tokiko kirol espazioak..... 44
- Kirol lehiaketetan parte hartzea (25/26)..... 45
- Kirol lehiaketeten antolaketa (25/26) 46
- Komunikabideak 2025 (AAGEN) 47
- Euskara sektore pribatuan (LANHITZ) 49
- Hedabideak 2025-2028..... 51
- Euskara gizarte bizitzan (EUSKALGINTZA)..... 53
- Euskarazko argitalpenak 2025-2026 55
- Euskara gaztelaniazko hedabideetan..... 57

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Kultura Ondarea Gazte-Saria

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko abenduaren 11koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2025eko «Kultura Ondarea Gazte-Saria» deitzen eta arautzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/12/2405834e.pdf
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2025/05/2502248e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen helburua da saritzea 2024-2025 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe ofizialetan matrikulatutako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailetako, Oinarrizko Lanbide Heziketa Zikloetako lehenengo eta bigarren mailetako, Batxilergoko lehenengo mailako eta Lanbide Heziketako Erdi Mailako Heziketa Zikloetako lehenengo mailako ikasleak; hain zuzen ere, bi bideoren bitartes (bat euskal kultura-ondarearen elementu bati buruz, eta bestea haren making off-a) euskal kultura-ondarearen ezagutza hedatzen hobekien laguntzen dutenak.

«Kultura Ondarea Gaze-Saria»-ren helburua da hezkuntza-jardueraren ekimena, berrikuntza, ekintzailetzarako gaitasuna, sormena eta garapen soziala sustatzea, Euskal Kultura Ondarearen forma material zein immaterialen ezagutzarekin eta balorazioarekin lotuta.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Mundu mailako pandemiaren intzidentziaren ondorioz 3 urteko geldialdia izan ondoren, 2022-2023 ikasturtean erabaki zuen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, osasun-irizpideak kontuan hartuta, ikastetxeei zuzendutako COVID protokoloa kentzea, gure gizartean lortutako immunitate-maila altuek aukera ematen baitute erabaki hori hartzeko. 2025eko edizioak sariaren jarraipena eta sendotzea ekarri du, eta aukera bikaina izan da eskola-egutegiaren barruan urteko ekimen seguru gisa kokatzeko, pandemiaren aurretik izan zen bezala.

Edizio honetan, 19 ikastetxeren 59 bideo jaso dira, baina 10 baztertu behar izan dira, ezarritako irizpideren bat ez betetzeagatik eta ez zuzentzeagatik, eta 2 errepikatuta egoteagatik. Beraz, azkenean, 47 bideo izan dira guztira. 47 bideo horietan 211 pertsonak hartu dute parte, 3-6 pertsonako taldeetan banatuta. Hala ere, kopuru hori handitu egin nahiko genuke hurrengo urteetan, ikastetxe gehiagok parte hartu duten arren, parte-hartze orokorra txikiagoa izan baita.

2023-2024 edizioaren ondoren, sarirako esleitutako aurrekontu-partida hobetzeko beharra ikusi zen (Napolirako kultura-bidaia hiru talde irabazleentzat), kontuan hartuta talde irabazleetako partaideak 3 izan daitezkeela edo 6, gehi tutore bat, horrek ekar ditzakeen aurrekontu estutasunekin. Hau izan da aurrekontu-hobekuntza horren bigarren edizio, 35.000€rekin.

Sariaren baliogarritasunari dagokionez, gure ustez, kultura-ondare materiala eta immateriala oso eklektikoak dira, eta ikuspegi eta tresna baliotsua izan dira irakasleentzat, irakasgaiak azaldu eta lantzeko orduan; ikasleentzat benetako aurkikuntza bat izan da, iraganak beren ingurunea, historia eta bizitza azaltzeko eta ulertzeko orduan duen balioa ikasteko eta ulertzeko modu dibertigarri eta kolektibo bat.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Kultura Ondarea sariak	3	3

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Kultura ondarearen ikerketa

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko uztailaren 18koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2025. eta 2026. urteetan euskal kultura-ondarea babestera bideratutako ikerketa-lanak egiteko dirulaguntzen deialdia egin eta laguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/09/2503704e.pdf

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/11/2505048e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Aginduaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-ondareko elementu materialei buruzko 2025 eta 2026 bitartean egiten diren ikerketa-proiektuak diruz laguntzea, elementu horien balioak identifikatzeko eta legez babesteko ezagutza erabilgarria sortzeko asmoz, euskal kultura-ondarearen parte diren aldetik.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Aginduaren 2. artikuluaren babesean (diruz lagundu daitezkeen jarduerak), 15 proiektu aurkeztu eta onartu dira baloraziorako eta 13 proiekturi eman zaie dirulaguntza. Deialdi honetan, aurrekoetan ez bezala, dirulaguntza jasotzeko atalase gisa ezarritako puntuazio bera edo handiagoa lortu duten proiektu guztiek dirulaguntza lortu dute. Emandako dirulaguntzen batura 176.770 eurokoa izan da, eta ez da agortu erabilgarri zegoen aurrekontu-partida (200.000 €).

2025ean diruz lagundutako proiektuen xedea euskal kultura-ondarearen alderdi askotarikoak dira. Horrela, Paleolitotik Aro Garaikidera bitarteko arku kronologiko zabal bat estaliko duten ikerketa-lanetarako dirulaguntzak eman dira, eta EAEko hiru lurraldeetan garatu dira, diziplina anitzeko taldeekin. Talde horiek, ondasunen tipologiaren eta kronologiaren arabera, honako hauek osatzen dituzte: historiaurreko arkeologoak, arkitekturaren arkeologian adituak, ondarearen dokumentazio geometrikoa, geologia, arkitektura, artearen historia, gudu-eremuetako historia militarra eta arkeologia, industriaurreko ekoizpenaren arkeologia, etab.

Haren erabilgarritasunari eta inpaktu sozialari dagokienez, argi eta garbi ikusten da, ikerketen gaian, kultura-ondarearen kontzeptu-esparrua zabaltzeak duen eragin positiboa, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak aitortua eta bultzatua. Gainera, proiektuetako bat klima-aldaketak

historiaurreko labar-artea kontserbatzeko ekarriko duen arazoaren planteamendutik egiten da, eta, esperimentazioaren bidez, aldaketak hainbat agertokitan izango duen eragina entseatzen da.

Gainera, uste dugu agindu honek eragin oso positiboa duela euskal kultura-ondarearen ezagutzan; izan ere, gizartearentzako sarbide irekia eta doakoa zabaltzen ari gara, "Kultura-ondarearen ikerketak" izeneko serieko argitalpenaren bidez, ikerketak metodo edo gai berritzaileekin egiteko interes berezia duten diruz lagundutako lanak. Kasu batzuetan, pertsona eta erakunde onuradunek beren kabuz edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuek gonbidatuta, emaitzak jendaurrean zabaltzeko konpromisoa hartzen dute, oro har, hitzaldi edo argitalpenen bidez, aldizkari zientifikoetan egin daitezkeen argitalpenez gain, edo bilera zientifikoetan komunikazioak aurkeztuz.

Diruz lagundutako lanetan euskararen erabilerak gutxiengoa izaten jarraitzen du, baina sendotuz doa; aurkeztutako 15 proiektuetatik 3 euskaraz aurkeztu ziren eta 4 lanaren amaierako memoria euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzita aurkezteko konpromisoa hartu zuten.

Azkenik, dirulaguntza horiek generoaren eta berdintasunaren arloan duten eraginari dagokionez, 2025eko deialdian sei eskabidek jaso dituzte esleitutako bost puntuak h) irizpidea aplikatuz (emakumeen eta gizonen berdintasunari eta genero-ikuspegia txertatzeari buruzkoa). Horietako lautan emakumeak proiektuaren eskatzaile/ikertzaile nagusi gisa agertzeagatik eman ziren, eta beste bietan proiektuan genero-ikuspegia txertatzeagatik. Horietatik guztietatik, lauk jaso zuten dirulaguntza.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Kultura ondarearen babesaren alorrari aplikatutako ikerketa lanak (dirulaguntza kop.)	12	13

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Kultura ondare immaterialaren babesa

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko azaroaren 5ekoa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2025-2026 aldian euskal kultura-ondare immateriala babesteko lanak egiteko laguntzen deialdia egin eta deialdi horren oinarriak onartzen dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/11/2504747e.pdf

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/12/2405888e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen helburua da dokumentazio-, ikerketa-, erregistro-, sustapen-, sorkuntza-, berraktibazio- eta abarretako proiektuak bultzatzea, euskal kultura-ondare immateriala babesten laguntzeko. Hiru lerro desberdinetako proiektuak laguntzen dira: ikerketa, katalogazioa, analisia eta planak; ondare immateriala sortzeko eta zabaltzeko jarduerak egitea dakarten proiektuak; toki-entitateek ondare immateriala sustatzeko eta zabaltzeko egindako jarduerak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Aurtengo deialdiak harrera ona izan du euskal ondare immaterialean interesa duten pertsonen eta elkarteen artean.

Edizio honetan egin den aldaketetako bat hiru dirulaguntza ildo sartzea izan da: 1. lerroa, ikerketa, katalogazioa, analisia eta planak; 2. lerroa, ondare immateriala sortzeko eta zabaltzeko jarduerak egitea dakarten proiektuak; 3. lerroa, toki-entitateek ondare immateriala sustatzeko eta zabaltzeko egindako jarduerak.

Era berean, dirulaguntzaren zenbateko osoa aldatu da, 400.000 €-ra pasatuz, honela banatuta: 1. lerroko jarduerak, 100.000 euro, eta 150.000 euro 2. eta 3. lerroetako bakoitzerako.

Dirulaguntza lerro berriak sartuta eta baliabide ekonomikoak handituta, erantzun zabalagoa eta anitzagoa lortu da, bai proiektuetan, bai aurkeztu diren erakunde eta pertsona fisikoetan. 50 proiektu aurkeztu dira 3 lerroetara: 19 lehen lerrora, 15 bigarren lerrora eta 16 hirugarren lerrora. 50 proiektu horietatik 25ek lortu zuten dirulaguntzaren Aginduaren 15.1 artikuluan eskatzen den gutxieneko puntuazioa: 70 puntu.

1. lerroan zazpi proiektu diruz laguntzera iritsi da. Proiektu horiei 128.617,44 euroko dirulaguntza eman zaie guztira.

2. lerroan 11 proiektu lagundu ahal izan dira. Proiektu horiei 194.710,33 euroko dirulaguntza eman zaie guztira.
3. lerroan 5 proiektu lagundu dira diruz. Proiektu horiei 76.672,23 euroko dirulaguntza eman zaie guztira.
3 lerroetan guztira 400.000 € eman dira, dirulaguntzaren zenbateko osoa.
Gaur egungo gizartean aldaketak azkar egitea erronka handia da kultura-ondare materiagabearentzat. Alde batetik, gizartearen digitalizazioa ohiturak, erabilerak eta horien pertzepzioa azkar aldatzen ari da. Bestalde, globalizazioak paradigma-aldaketak eragin ditu bizitzeko moduetan eta sozializazioan, interes-gune eta lan-jarduera berriak sortu ditu, baita inoiz ezagutu gabeko migrazio-prozesuak ere. Ondorioz, gure arbasoen ohiturak, jakintzak eta bizimoduak berehala ahaztu eta gal daitezke.
Generoaren ikuspegitik egindako azterketari dagokionez, aginduan balorazio-irizpide bat dago, emakume batek zuzendutako jarduerei mesede egiten diena, edo emakumeen kolektibo baten parte-hartzea dakartenei, edo genero-ikuspegia txertatzen dutenei. Ildo horretan, esan behar da eskaera gehienak (% 58) emakumeen zuzendaritzapean aurkeztu direla.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

	Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza	
		7-8	8	

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal kultura ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzea

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko ekainaren 11koa, lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Euskal Kultura Ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzeko 2025-2027 aldirako dirulaguntzetarako deialdia arautzen eta egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/06/2502723e.pdf
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/11/2505017e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 76. artikuluak ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko eta bertako Lurralde Historikoetako herri-administrazioek, gutxienez, herri-lana finantzatzeko aurrekontu-partiden %1 bideratu behar dute Euskal Kultura Ondarea osatzen duten ondasunak kontserbatu, zaindu, balioetsi eta hedatzera.

Aurreko Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean betebehar hori aurreikusten zuen artikulua garatzeko, Eusko Jaurlaritzak aurrekontu-erreserba horren arauak onartzen dituen uztailaren 28ko 204/1998 Dekretua eman zuen, eta indarrean jarraitzen du 6/2019 Legea erregelamendu bidez garatu arte. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari dagokionez, 204/1998 Dekretuak aukera ematen du %1 kulturala osorik edo zati batean aurrekontu-esleipen bihurtzeko, eta, horren kontura, kulturaren arloan eskumena duen sailak erreserba horren xedeak bete behar ditu, 6/2019 Legearen 3) artikuluak, zehazki, Eusko Jaurlaritzari esleitzen dizkion eskumenen esparruan. Eskumen horien artean, Kultur Ondarearen garrantzia azpimarratzeko neurri ekonomikoak. Kultura sailburuaren 1999ko otsailaren 19ko Aginduaren bidez ezarri ziren aurrekontu-erreserba aplikatzeko irizpideak, gerora Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko ekainaren 30eko Aginduaren bidez aldatu zirenak. Aipatutako eskumenak gauzatzeko, sailak agindu hau sustatzen du. Agindu horren bidez, Euskal Kultura Ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzeko jardueretarako diru-laguntzen deialdia egiten da urtero, eta diru-laguntza horiek eskatzeko, emateko eta justifikatzeko baldintzak arautzen dira. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak, gehienez ere, 2025-2027 hiru urteko aldian garatu beharko dira, EAEko kultura-ondasunaren deklarazioa duten ondasunen gainean, eta pertsona fisiko jabeek nahiz irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuek edo publikoek sustatu beharko dituzte.

Agindua Euskal Autonomia Erkidegoko 2024ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 20ko 8/2024 Legean Kultura Ondarearen Zuzendaritzari esleitutako aurrekontu-programan txertatzen da, guztira 4.500.000 euroko aurrekontu-zuzkidurarekin, 1.500.000 euroko 3 urtekotan banatuta (2025, 2026 eta 2027).

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Kulturako sailburuordearen 2025eko azaroaren 12ko Ebazpenaren bidez, 2025-2027 aldirako Euskal Kultura Ondarearen balioa nabarmentzeko eta zabaltzeko dirulaguntzak eman ziren, eta 33 jardueratarako dirulaguntza eman zen (8 Araban, 10 Bizkaian eta 15 Gipuzkoan). Onuradunak 21 udal, irabazi-asmorik gabeko 9 erakunde juridiko, enpresa 1 eta 2 pertsona fisiko dira. Jarduera motari dagokionez, diruz lagundu dira: ondasun higiezinak berrerabiltzeko 13 proiektu, Donejakue Bideko Monumentu-multzoari balioa emateko 8 proiektu, Burdin Hesiaren Monumentu-multzoari balioa emateko proiektu 13, Hirigune Historikoei balioa emateko 13 proiektu, beste Monumentu-multzo edo Monumentu batzuei balioa emateko 9 proiektu, ondare arkeologikoari balioa emateko 7 proiektu eta elizaren kultura-ondasunei balioa emateko eta zabaltzeko 6 proiektu.

Jarduerak hasi zirenetik igarotako epea oso laburra denez, oraingoz ez da amaitu diruz lagundutako jarduerarik. Aurrekontua gauzatzeari dagokionez, aurreko deialdian bezala, aurrekontu osoa Aginduan ezarritako kalkulu-prozeduraren bidez banatu da; hala, erakunde onuradun bakoitzari gehieneko dirulaguntza eman ahal izan zaio, balorazio-fasean lortutako puntuazioaren arabera. Aurrekontu-kreditu ia osoa (4.441.398,00 euro) agortu da 33 eskatzaileren artean, eskatutako gutxienekoa baino puntuazio handiagoa lortu duten eskabide guztiei erantzunez.

Diru-laguntzaren erabilgarritasunari dagokionez, kultura-ondarea osatzen duten ondasunetan egindako jarduketak, kasu askotan, izaera bereziko ondasun baliotsu eta kalteberetan egindako esku-hartze konplexuak dira, eta inbertsio ekonomiko handiak eskatzen dituzte konplexutasun teknikoagatik, espezifikotasunagatik, kontserbazio-egoera eskasagatik edo tamainagatik. Diru-laguntza emateko agindua ezinbesteko sustapen-neurria da; izan ere, kasu askotan, jabe partikularrek eta administrazio publikoek ez dute haiek bakarrik lantzeko gaitasunik. Bestalde, agindua bereziki eraginkorra da arlo ekonomikoan apalagoak diren jarduerak sustatzeko, gizartea sentsibilizatzera eta kultura-ondarea sozializatzera bideratuta daudenak, eta, ondare hori zaintzeko eta kontserbatzeko ezinbestekoak izan arren, batzuetan lehentasunezkotzat jotzen ez direnak, bereziki, toki-administrazioek.

Gizarte-inpaktuari dagokionez, urtero egiaztatzen da erakunde publikoek aurkeztutako eskaeren proportzioa askoz handiagoa dela pertsona edo erakunde pribatuena baino, eta horrek aukera ematen du interpretatzeko proiektu horiek eragin eta interes sozial handiagoa izango dutela. Deialdi honen inpaktua aurreko edizioena baino askoz nabariagoa izan da; izan ere, eskatzaile-kopuru askoz handiagoari erantzun ahal izan zaio, eta erakunde publiko izan dira onuradun gehienak. Bestalde, diruz lagundutako ia jarduera guztiek kultura-ondasunen seinaleztapena eta interpretazioa barne hartzen dute, eta horrek haien ondare-balioei buruzko hedapena eta sentsibilizazioa bultzatzen du gizartean. Azpimarratzekoa da, halaber, kultura-ondarearen sektorean espezializatutako teknikariak eta enpresak kontratatzea eskatzen duten diruz lagundutako jardueren garapenak sortutako jarduera ekonomikoa, tokiko garapenari lagun diezaiokela.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Emandako dirulaguntzen kopurua	25	33

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Itsas kultura ondarea

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko maiatzaren 21ekoa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, ontzi eta itsas kultura-ondarearen garrantzia nabarmentzeko 2025eko ekitaldiko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta deialdia egiten duena

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2025/06/2502417a.pdf
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/09/2503973e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza hauek itsas-ondarearen arloan eman ditugu kultura-balioa duten elementuak sustatzeko, sendotzeko, konpontzeko eta bere erabilerara egokitzeko. Jarduera horiek, betiere, bateragarriak izan behar dira elementu horien kultura-balioekin.

Lau diru-laguntza lerrotan eman dira laguntzak, jarraian adierazten den bezala:

1. lerroa. Egurrezko ontzietan obrak egitea, musealizazioa helburu. Honako hauek lagunduko dira diruz: azterlanak, segurtasunerako obrak eta sarbidea, kartelak…

2. lerroa. Egurrezko ontziak tresnatzea eta prestatzea, jendeari zerbitzua emateko. Barne: segurtasun- eta nabigazio-ekipamendua, balioan jartzea eta egiturazko lanak, nabigaziorako beharrezkoak direnak.

3. lerroa. Egurrezko ontziak konpontzeko eta egokitzeko gastuak. Barne hartuta ontziaren nabigaziorako beharrezkoak diren lizentzia eta baimenak izapidetzeko gastuak. Esku-hartzeak ez die ondare-balioei kalte egingo.

4. lerroa. elkarte edo entitate publiko zein pribatuek egurrezko ontzi eta itsas kultura-ondarearen garrantzia azpimarratzeko antolatutako ekitaldiak edo jarduerak. Diruz lagunduko dira zenbait jarduera edo ekitaldi-atal, baldin eta zuzeneko lotura badute ontzi eta itsas kultura-ondarearen garrantzia nabarmentzeko lanarekin (ontzien kontzentrazioak, lanbide eta tradizioak berreskuratzea, erakusketak, hitzaldiak, jarduera didaktikoak, argitalpenak...).

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025ean 4. lerroa zabaldu eta egokitu da, errealitatera eta elkarteek eta erakundeek egiten dituzten eta interes publikokoak diren jardueretara hobeto egokitzeko.

Guztira 150.000 €-ko 28 dirulaguntza eman dira, laguntza-lerroen arabera banakatuta:

- L1: 6
- L2. 8
- L3: 9
- L4: 5

Ondare horretan dauden partikularrek, elkarteek eta gainerako erakundeek ondo baloratutako dirulaguntzen agindua da, eta, salbuespenak salbuespen, interesdunen artean oso ezaguna eta ondo baloratua da.

Eskaintza/eskariaren orekari dagokienez, uste da gaur egun ondo doituta dagoela, eta ondo betetzen duela nahiko autarkikoa den sektore baten eskaria.

Deialdi honetan ez da generoaren araberako eraginaren ebaluaziorik egin behar, zurezko ontzi tradizionalen inguruko lanak diruz laguntzean oinarritzen baita.

Kontuan izan behar da aginduak eragin kualitatibo neurgarria izateaz gain sinergiak sortzen dituela zenbait jabek itsasontziak kultura-ondaretzat har ditzaten.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Emandako dirulaguntzen kopurua		28

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Museoak eta bildumak

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko ekainaren 11koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira Euskadiko museo eta bildumei 2025. urtean dirulaguntzak emateko oinarriak eta deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/06/2502778e.pdf
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/07/2503295e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza horien helburua da Euskadiko Museoei buruzko abenduaren 1eko 7/2006 Legearen 2.4 artikuluan ezarritako eginkizunak betetzera bideratutako jarduerak egiten laguntzea. Jarduerak jarduera-ildo hauetako batean kokatu beharko dira, eta horien barruan jasotzen dira diruz lagundu beharreko jarduerak:

1. Bilduma osatzen duten funtsen katalogazioa, dokumentazioa eta ikerketa.
2. Bilduma museografikoen digitalizazioa eta irisgarritasuna.
3. Erakusketa iraunkorra berritzea, aldi baterako erakusketak antolatzea, eta jarduera didaktikoak eta kultura zabaltzeko jarduerak diseinatzea eta eskaintzea.
4. Bilduma museografikoak osatzen dituzten funtsak kontserbatzea eta balioa ematea.
5. Museoaren kudeaketan berrikuntza eta irisgarritasuna hobetzea eta bultzatzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025ean, 30 erakunderi zegozkien 90 eskabide aurkeztu ziren, eta guztiei eman zaie laguntza. Onuradun izan diren erakunde motak kontuan hartuta, esan dezakegu eragin handia duela Euskadiko museo-jardueran.

2025eko deialdian emandako dirulaguntzen zenbateko osoa 1.179.247,00 eurokoa izan zen, eta ez zen 1.600.000 euroko mugara iritsi.

2025ean, egin ziren aldaketak kontuan hartuta, proiektu gehien izan zituzten ildoak honako hauek izan ziren: 1 (Bilduma osatzen duten funtsen katalogazioa, dokumentazioa eta ikerketa) eta 3 (Erakusketa iraunkorra berritzea, aldi baterako erakusketak antolatzea, eta jarduera didaktikoak eta kultura-

zabalkundekoak diseinatzea eta eskaintzea), hurrenez hurren 29 eta 27 proiekturekin (90etik), hau da, aurkeztutako proiektuen % 62 eta emandako diruaren % 82.

Azkenik, aipatu behar da deialdiak museoen funtzio soziala indartzera bideratutako neurrien multzo bat jasotzen duela modu koherentean, berdintasun-irizpideak, irisgarritasun unibertsala, jasangarritasuna eta kultura-ondarearen kontserbazioa integratuz. Bereziki, erakusketa, jarduera didaktiko eta diskurtso museografikoen diseinuan genero-ikuspegia txertatzea sustatzen du, ordezkaritza orekatua eta ez-diskriminatzailea sustatuz. Era berean, irisgarritasun unibertsala bultzatzen da, digitalizazio-proiektuei, irisgarritasun fisikoa eta kognitiboa hobetzeko proiektuei eta tresna digital inklusiboak garatzeko proiektuei lagunduz, eta horrek oztopoak kentzen laguntzen du dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat eta beste kolektibo gutxitu batzuentzat. Kultura-ondarea kontserbatzea eta balioestea programaren ardatz nagusia da, funts museografikoak – materialak zein ez-materialak – katalogatzeko, zaharberritzeko, prebentzioz kontserbatzeko eta ikertzeko jardueren bidez.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
1-. Bilduma osatzen duten funtsen katalogazioa, dokumentazioa eta ikerketa.	20	29
2-. Bilduma museografikoen digitalizazioa eta irisgarritasuna.	20	9
3-.Erakusketa iraunkorra berritzea, aldi baterako erakusketak antolatzea, eta jarduera didaktikoak eta kultura zabaltzeko jarduerak diseinatzea eta eskaintzea.	20	27
4-. Bilduma museografikoak osatzen dituzten funtsak kontserbatzea eta balioa ematea.	20	11
5-. Museoaren kudeaketan berrikuntza eta irisgarritasuna hobetzea eta bultzatzea.	20	14

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Artxibo pribatuak

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko irailaren 17koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez publikoak ez diren artxiboak antolatu, digitalizatu eta zabaltzeko dirulaguntzak emango baitira eta 2025eko ekitaldirako deialdia egingo baita.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/09/2503991e.pdf
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/12/2505146e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Aginduak artxibo politikaren atal egonkor bat indartzen du epe luzera: artxibo-funtsen jabe pribatuei laguntzea (Euskal Herriaren historia berezia dela-eta bereziki ugariak baitira). Helburuei dagokionez, aurreko urteekin alderatuta ez dago aldaketarik: partikular, familia, erakunde, elkarte eta abarrekin lankidetzan aritzea haien jabegoko artxibo funtsak antolatzeko eta ondoren hedatzeko, batez ere, Euskadiko Artxibo Historikoaren webgunearen bidez. Programa gehienen emaitza izaten da artxiboaren inbentarioa, horixe baita baliabide nagusia ondoren kontserbazio edota digitalizazio programak diseinatu ahal izateko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025eko ekitaldiko aurrekontu orokorretan, programa honetarako 120.000 euro bideratu ziren guztira, eta, horien bidez, aurkeztu ziren 9 erakundeen eskaeretatik 10 proiektu finantzatzea ebatzi zen, erakunde eskatzaileekin lankidetzan eta programa bakoitzeko 15.000 euroko gehieneko mugarekin. Horrelako programa baten arrakasta (jasotako proposamenen kopuruak eta kalitateak bermatzen duen dagokion inpaktu sozial handiena) programa horren jarraitutasunean eta egonkortasunean datza. Artxiboen jabeak eta erakunde partikularrak (fundazioak, sindikatuak, elkarteak, etab.) beren artxiboa kontserbatzera eta gizarte osoaren onurarako erabiltzera animatzea da helburua. Aurreko ekitaldian baino emaitza apalxeagoak izan arren, egiten den inbertsioari dagokionez, nahiko pozgarriak direla uste dugu. Lortutako emaitza zehatzak hainbat motatakoak dira: 1) Esku pribatuetako dokumentu-ondare aberatsaren zati bat antolatzen da betiko; 2) Ekimen pribatuari sektore horretan inbertitzera bultzatzen zaio; 3) Sare publikoetan sartzen dira ondare horren segmentu oso esanguratsuak, herritarrentzat eskuragarri izatera pasatzen

direnak; 4) Internet bidezko gure ikerketa-zerbitzua aberasten da, Badator-Dokuklik funtsezko erreferentzia da Euskadiri buruzko edozein ikerketatarako.

Genero-ikuspegia balorazio-irizpideetan sartu da, eta gehienez 5 puntu emango zaizkie beren helburuagatik (emakumeek edo emakume-talde edo -elkarteek sortutako artxiboak, edo emakumeen bizitzari eta jardunei buruzko dokumentu-funtsak) eta emakumeen eta gizonen berdintasunera bideratutako jarduketetan duten eraginagatik proiektuan genero-ikuspegia berariaz txertatzen duten programei.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Dirulaguntza kopurua	18	10

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Liburutegietan irakurketa sustatu

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko uztailaren 9koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, irakurketa eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegien zerbitzuen erabilera sustatzeko dirulaguntzak arautzeko eta dirulaguntza horien 2025eko deialdia egiteko dena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/09/2503703e.pdf
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/11/2504802e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuaren arabera, Liburutegi Zerbitzuaren eskumenak dira: «Euskadiko Liburutegien urriaren 26ko 11/2007 Legearen esparruan Euskadiko Liburutegien Irakurketa Publikoko Sareari dagozkion planifikazio-, funtzionamendu- eta koordinazio-egitekoak garatu eta gauzatzea», bai eta «Irakurtzeko zaletasuna sustatzeko neurriak diseinatzea» ere.

Hori dela eta, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak uste du lehentasuna duela irakurzaletasuna sustatzea helburu duten jarduera guztiak diruz laguntzea, batez ere, haur eta gazteen artean egiten direnak, eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean txertatuta dauden liburutegietan kultura eta liburutegi-zerbitzuak hedatzeko jarduerak bultzatzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Araututako laguntzak eskuratu ahal izateko, 2025ean, 151 eskabide baliodun aurkeztu ziren guztira, aurreko ekitaldian baino 4 gutxiago. Pandemia aurreko azken ekitaldiko balioen aldean, behera egin dute apur bat eskabideek (162 eskaera 2019an).

Kontabilizatutako 151 eskaeretatik 132 zuzen justifikatu ziren, hau da, aurkeztutako eskabide guztien % 87,42 (aurreko urtean % 85,16 izan zen) eta 18ri minorazioa aplikatu zitzaien. Beste eskabide batean uko egin zioten emandako dirulaguntzari, ez zutelako jarduerarik egin eta, ondorioz, ezta justifikatu ere.

Eurotan, 370.000,00 euroko aurrekontu-zuzkiduratik 366.023,00 euro justifikatu ziren, hau da, emandakoaren % 98,92.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazleen emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Irakurketa-klubak	50	70
Literatura-lehiaketak antolatzea	15	—
Ipuin-kontalariak	300	509
Bisita gidatuak	50	16
Erakusketak	50	2
Aurkezpenak	30	58
Literatura-tailerrak	50	17

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Liburutegietarako liburu funtsak

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko uztailaren 9koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Euskadiko liburutegietarako funts bibliografikoak sortu edota berritzeko dirulaguntzen 2025eko deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/08/2503683e.pdf
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/11/2505100e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Aginduan iragarritako dirulaguntzak, gehienez ere, 1.000.000,00 eurokoak izango dira.
Fundazio-loteetarako dirulaguntzak ematea, honako hauetarako:
a) 15.000,00 euro, gehienez, liburutegi sortu berriek funts bibliografikoak eskuratu ditzaten.
b) 30.000,00 euro, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarekoak ez diren euskal liburutegietako funtsak hornitzeko.
c) 955.000,00 euro, lehendik Irakurketa Publikoko Sarean dauden liburutegiek funts bibliografikoak berritu ditzaten.
Liburutegi sortu berrietarako fundazio-sortei eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarekoak ez diren liburutegiei dagokien kopurua agortzen ez bada, soberakina Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietako funts bibliografikoak berritzeko erabiliko da.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Aginduan ezarritako epean 181 eskabide aurkeztu ziren lehendik zeuden liburutegietako funts bibliografikoak berritzeko. Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarekoak ez diren liburutegietarako funtsak eskuratzeko ere bi eskabide jaso ziren. Guztira, 183 eskaera egin ziren.
EIPSkoak ez diren liburutegien modalitatean, 10.000 €-ko dirulaguntzak eman ziren liburutegietako funtsak eskuratzeko. EIPSkoak ez diren liburutegietara bideratutako 10.000 euroak behar bezala justifikatu dira.
EIPSko liburutegietako funtsak berritzeko sorten modalitatean: 990.000 €. Lehendik dauden liburutegietako funtsak berritzeko 990.000,00 €-etatik 978.641,78 € behar bezala justifikatu ziren, hau da, onartutakoaren % 98,85 (2024an, aldiz, % 97,94). Gainerakoekin, 11.358,22 € (% 1,15), diru-kopuruak itzultzeko prozedura hasi da.

2025eko estatistiketan oinarrituta, liburutegiek eskuratutako funtsei esker, beren lana modu eraginkorragoan egin ahal izan dute, eta maileguak, erabiltzaileen kopurua, katalogora egindako bisitak eta liburutegien arteko mailegua handitzea lortu dute.

Zehazki, liburuzainek 208.556 ale eman dituzte altan, eta 39.501 irakurle berri eman dute izena, guztira 1.056.255 irakurle. Halaber, 2.837.820 mailegu eta 449.929 mailegu-eskaera egin zaizkie beste liburutegi batzuei, eta 4.317.076 kontsulta egin dira liburutegi publikoen katalogoan. Liburutegietan eskumena duten udalek eta toki-erakundeek 1.441.031 €-ko gastu globala egin dute 2025eko ekitaldian liburutegietarako funtsak erosteko, eta Eusko Jaurlaritzaren ekarpena, laguntza-agindu honen bidez, erakunde eskatzaileek egindako ekarpenaren % 69,39 da.

Sareko liburutegietako funtsak eguneratzeari esker, haietara jotzen duten erabiltzaileen beharrak eta igurikimenak ase daitezke, informazioa bilatzeko eta aisialdirako irakurketak egiteko. Liburutegietan nobedadeen eskaintzak gora egin duenez, horien erakargarritasuna handitu egiten da, eta zuzenean eragiten du maileguen hazkundean. Funtsak erosteko dirulaguntzen aginduari esker, liburutegiek beren katalogo bibliografikoak berritzen jarraitzea lortu dute, eta erabiltzaileei aukera eman zaie azken editorialak eskuratzeko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Dirulaguntza kopurua.	180	183
Liburutegi eratu berrietarako dokumentu-sortak eskuratzea.	1	0
Lehendik dauden liburutegietako funtsak berritzeko izenburuak eskuratzea.	25.000	23.046
Mailegurako aleak eskuratzea.	230.000	208.556

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Teknologia berriak liburutegietan

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko uztailaren 29koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietan teknologia berriak ezartzeko eta garatzeko dirulaguntzen oinarriak, eta laguntza horien deialdia iragartzen baita.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/09/2503733e.pdf
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/11/2504920e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programari esker, liburutegiek elementu teknologikoak eskuratzen eta/edo berrizten dituzte.
Helburua da liburutegi publikoetan informazio teknologien ezarpena eta garapena ahalbidetzen dituzten ekintzak laguntzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Dirulaguntzen agindu honetara 300.000,00 euro bideratu dira 2025erako. Aginduan ezarritako epean 90 eskabide aurkeztu ziren, aurreko urtean baino 6 gutxiago. Kontuan izan behar da eskaera bat bikoiztuta zegoela, eta, beraz, egiazki, 89 eskabide aurkeztu ziren Euskadiko Irakurketa Sare Publikoko liburutegietan teknologia berriak ezartzeko eta garatzeko dirulaguntzak emateko, Aginduan ezarritako epearen barruan eta Aginduan ezarritako baldintzak betez. Beraz, 89 eskaera onartu dira. Dirulaguntzaren 300.000 euroetatik % 91,20 gauzatu da (273.604 €) eta 26.396 € erabili gabe utzi dira.

Agindu honetara bideratutako zenbatekoa ez erabiltzeko arrazoiak honako hauek izan dira:

- Uko egiteak: 4 liburutegik uko egin diote dirulaguntzari, hainbat arrazoirengatik. Horregatik 12.743 euro itzuli zaizkio Ogasunari.
- Murrizketak: 10 liburutegik hasieran aurrekontuan sartutako gastua baino txikiagoa justifikatu dute. Horregatik 13.653 € itzuli zaizkio Ogasunari.

Laguntza horiek emateak esan nahi du sareko liburutegietan ekipamendu informatikoak berritu direla, eta horrek hobekuntza dakar bai liburuzainen eguneroko lanean, bai erabiltzaileek egiten dituzten kontsultetan eta funtsen erabileran. Ondorioz, euskal herritarrei liburutegi-zerbitzu hobea ematea dakar. Teknologia berrietarako emandako dirulaguntzekin, liburutegiek gora egiten jarraitzen dute Interneteko kontsulta-

puntuek, izapide elektronikoak egiteko aukera ematen dute, eten digitala murrizten dute, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonentzako laguntzak ematen dituzte eta 2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzen laguntzen dute.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Mahai gaineko ordenagailuak, ordenagailu eramangarriak.	115	93/133 monitore
Ordenagailuetarako elementuak: teklatuak, pantailak, bozgorailuak, mikrofonoak, aurikularrak.	250	122
Wifi instalazioak, komunikaziokoak	15	11
Automailegu-makinak, ebasketen aurkako sistemak, itzultzeko postontziak.	25	17
Tableta, e-books.	40	31
Birusen kontrako softwarea, ordenagailuen erabilera kudeatzea jendearentzat.	50	50
Beste elementu batzuk	50	141

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Kultura ondarea digitalizatzea

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko irailaren 3koa, Jaurlaritzaren lehen lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, euskal kultura-ondarea euskal kulturaren atari digitalaren bidez hedatzeko dastatu, digitalizatu eta kontserbatzeko espezieko laguntzak arautzen dituena eta 2025. urterako proiektuak aurkezteko deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/09/2503790e.pdf https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2026/02/2600856e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua da euskal kultura-ondarea osatzen duten elementuak kontserbatzea eta hedatzea, baliabideak digitalizatzeko edo katalogatu eta digitalizatzeko dirulaguntzak gauzatan emanez, pertsona, erakunde edo instituzio interesdunek xede horretarako aurkeztutako proiektuak baloratu, onartu eta gauzatu ondoren.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Hiru lurralde historikoetako erakunde publiko eta pribatuen 12 proiektu gauzatzeko eskabideak aurkeztu dira, euskal kultura-ondarearen hainbat baliabide tipologia katalogatu eta digitalizatzeko. Horietatik 2k atzera egin dute eta 3k ez dira onartu. Gauzazko laguntza jaso duten proiektuak gauzatzeko aurreikusitako kostua 98.888,43 eurokoa da. Aurkeztutako proiektuetako batek ezin izan du dirulaguntzarik jaso aurrekontu-kreditua agortzeagatik. Aurkeztutako baliabideen tipologia askotarikoa da: arbelezko diskoak, erroilu zulatuak, pianolazko biribilkiak, organo mekanikoko, harmoniozko, VHSko biribilkiak, film superak, aldizkako argitalpenak, material grafikoa, argazkiak, marrazkiak, kartelak, diapositibak. €. Euskal kultura-ondareko baliabideak katalogatzeko eta digitalizatzeko proiektuan erakunde publiko eta pribatuak inplikatzea lortu da, euskal kultura askotariko ikuspegietatik ezagutzeko eta zabaltzeko aukera ematen duten baliabideak sortzen edo biltzen dituztenak: artea, sindikatua, musika, etab. Ia agortu da aurreikusitako aurrekontu-kreditua. Horiek gauzatzeko, Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritzak egoki iritzitako bitartekoak erabiliko dira. Laguntza gauzatan emateko balorazio-irizpideetako bat izan da genero-ikuspegia txertatzea eta/edo emakumeek euskal kultura-ondareari egiten dioten ekarpena ikusarazteko ekintza positiboak txertatzea. Kontuan hartu ditu emakume baten edo emakume-talde baten egiletza eta genero-estereotipoak eta

aurreiritzi sexistak gainditzen laguntzen duen kultura-ondareari emakumeek egiten dioten ekarpena ikusaraztea, edo gizarte-memoria egiten eta berreraikitzen laguntzea, baita memorializazio-prozesuak ere, genero-ikuspegitik.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Emandako dirulaguntzen kopurua		6

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Artxiboko dokumentazioa ikertzea (25/26)

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko irailaren 3koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena. Honen bidez, Euskadiko Artxibo Historikoan gordetako artxibo-funtsekin eta dokumentu-ondarearekin lotutako ikerketa-proiektuetarako bekak ematea ezartzen da, eta 2025ean lau beka emateko deialdia onartzen da.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/09/2503854e.pdf
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/12/2505144e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskadiko Artxibo Historikoari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoari lotutako artxibo-funts publiko eta pribatuen informazioa zabaltzea, bai eta Euskadiko dokumentu-ondarearen eta artxiboen balioari buruzko kontzientziazio sozial eta kolektiborako neurriak proposatzea ere, arlo horretako prestakuntzan eta hezkuntzan lagunduz. Ildo horretan, dirulaguntza programa hau ikerketa-beka gisa definitzen da, banaka aurkezten diren ikertzaileentzat, Euskadiko Artxibo Historikoan dagoen euskal dokumentu-ondarearen ikerketa sustatzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025eko ekitaldiko aurrekontu orokorretan, 40.000 euro bideratu ziren guztira programa horretara, eta, horien bidez, aurkeztu ziren 7 eskabideetatik 4 beka esleitzea ebatzi zen, beka bakoitzeko 10.000 euroko zenbatekoarekin. Horrelako programa baten arrakasta (hau da, jasotako proposamenen kopuru eta kalitateak bermatzen duen inpaktu sozial handiagoa) programa beraren jarraitutasunean eta egonkortasunean datza. Helburua da esparru akademikoko ikertzailea, Artxiboko erabiltzailerik klasikoena, ikerketan sakontzen jarraitzera animatzea, historiaren azterketa ikuspegi profesionaletik eginez. Gure ustez, emaitzak oso pozgarriak dira egiten den inbertsioari dagokionez. Ildo horretan, hainbat motatako emaitza zehatzak lortzen ditugu:

1) jatorrizko dokumentu-iturrien azterketa bultzatzea, unibertsitate-eremuko ikerketaren panorama hobetzen laguntzeko;

2) profesionalizatu nahi duten ikertzaile gazteei laguntzea;

3) artxiboko ikerketen aurkikuntzak, proposamenak eta diskurtsoak publiko zabalari eskuragarriago egitea;

4) gure dokumentu-funtsak modu eraginkorragoan ezagutaraztea. Genero-ikuspegia balorazio-irizpideetan sartu da, eta 10 puntu emango zaizkie, gehienez, genero-historiaren ikuspegia berariaz jorratzen duten programei.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Beka kopurua	4	4

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Musika (25/26)

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko martxoaren 18koa, Jaurlaritzaren lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez 2025eko ekitaldiko musika-jarduera profesionaletarako dirulaguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten baita.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2025/03/2501393e.pdf
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2025/11/2504852e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Musikaren sektorearen balio-kate osoa sustatzea, sorkuntzatik hasi eta erakusketa eta kontsumora arte, musikako profesionalen lana, enpresen egonkortasuna eta programazioa babestuz.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

127 eskaera izan ziren, eta 104 diruz lagundu ziren.
Aurrekontuan aurreikusitakoa: 1.000.000 € Aurrekontua gauzatzea: 1.000.000 €
Erabilgarritasun eta inpaktu soziala: helburuak betetzen ditu, eta, beraz, erabilgarritasun eta eragin sozial handia du.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Onuradun guztira	75	104

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Arte eszenikoen sustapena (25/26)

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko martxoaren 19koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez arte eszenikoak sustatzeko programetarako 2024ko ekitaldian emateko dirulaguntzak arautzen baitira, eta horietarako deialdia egiten.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2024/12/2405741e.pdf
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2025/04/2501481e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Arte eszenikoak sustatzeko prestakuntza-, sustapen- edo erakusketa-programak eta -jarduerak diruz laguntzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

228 eskaera izan ziren, eta 149k jaso zuten dirulaguntza.
Aurrekontuan aurreikusitakoa: 825.000 €Aurrekontua gauzatzea: 825.000 €
